

## Udalak Belaunaldi Aldaketa Programa bat bultzatzen du, merkataritza txikiaren jarraipena ziurtatzeko

### *Erretirotik gertu dauden merkatariei formazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskainiko die ekimenak.*

Lasarte-Oriako Udalak **Merkataritza Txikiaren Belaunaldi Aldaketa Programa** aurkeztu du prentsaurrekoan, **Nuria Fernández Castrillo** Sozioekonomia zinegotziak, Beterri Buruntzako ordezkariak, **Patxi Iburguren Etxeberria**, Beterri-Buruntzako Mankomunitateko lehendakaria eta **Marisa Trueba Aguirrebeña** teknikaria, eta **ATERPEA** Tokiko Merkataria eta Ostalarien Elkarteko ordezkariak parte hartu duten ekitaldian.

Buruntzaldea eskualdeko negozioen titularren adinari buruz berriki egindako ikerketa baten emaitzen ondoren sortu da ekimena, eta horrek tokiko ekonomiarentzat funtsezko erronka bat agerian utzi du: datozen urteetan, establezimendu askok aurre egin beharko diote jabeen erretiroari, eta horrek arriskuan jarriko ditu merkataritza-jardueraren jarraitutasuna eta enplegua sortzea.

Errealitate horren aurrean, programaren helburua da Lasarte-Oriako merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetako titularrak erretirorako trantsizio ordenatu baterako prestatzea, beren negozioen jarraitutasuna eta udalerriko sare ekonomikoaren iraunkortasuna ziurtatuz.

Datozen hamar urteetan erretiroa hartuko duten merkatariei zuzenduta dago programa. Helburua da gogoeta eta planifikazio prozesu batean laguntzea, beren negozioen titularitatean erreleboa har dezaten, establezimenduek irekita jarraitu ahal izan dezaten beren etapa profesionala amaitutakoan.

Ekimenak **prestakuntza praktikoa eta aholkularitza pertsonalizatua** uztartzen ditu, bi zutabe nagusitan egituratuta:

<b>Negozio-titularrentzako prestakuntza-saioak</b>  <b>otsailak 18:</b> Programaren aurkezpena <b>otsailak 23:</b> <i>Erretiroari buruz jakin beharreko gakoak</i> <b>martxoak 2:</b> <i>Negozioaren erreleboa planifikatzen</i>  <b>Lekua:</b> Mercero gunea <b>Orduetgia:</b> 14:00etatik 16:00etara	<b>Tutoretzak eta aholkularitza indibidualizatua</b> , negozio bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitutako errelebu-plana egitera bideratuak.
---	---

Saioetan izena emateko, formulario hau bete behar da: <https://forms.gle/kvuRAuEpBqNJQw1f6>

Udaletik azpimarratu dute merkataritza txikiaren jarraipena bermatzea giltzarria dela Lasarte-Oriaren bizitasun ekonomiko eta soziala mantentzeko. Programa honen bidez, tresnak eta laguntza eskaini nahi zaizkie beren bizitza negozioetan eman dutenei, erretiro lasaia erraztuz eta etorkizuneko belaunaldientzat bideragarria den enpresa-ondarea ziurtatuz.

## El ayuntamiento impulsa un Programa de Relevo Generacional para asegurar la continuidad del pequeño comercio y hostelería

***La iniciativa ofrecerá formación y asesoramiento personalizado a comerciantes próximos a la jubilación.***

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria ha presentado en rueda de prensa, el **Programa de Relevo Generacional del pequeño comercio**, en un acto en el que han participado **Nuria Fernández Castrillo**, concejala de Socioeconomía, **Patxi Iburguren Etxeberria**, presidenta de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza y Marisa Trueba Aguirrebeña, técnica, como representantes de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza y representantes de la Asociación de Comerciantes y Hosteleros local, ATERPEA.

La iniciativa surge tras los resultados de un estudio reciente sobre la edad de los titulares de negocios en la comarca de Buruntzaldea, que ha puesto de manifiesto un reto clave para la economía local: en los próximos años, un elevado número de establecimientos se enfrentará a la jubilación de sus propietarios, con el consiguiente riesgo para la continuidad de la actividad comercial y la generación de empleo.

Ante esta realidad, el programa tiene como objetivo preparar a las personas titulares de establecimientos comerciales y de Hostelería de Lasarte-Oria para una transición ordenada hacia la jubilación, asegurando la continuidad de sus negocios y la sostenibilidad del tejido económico del municipio.

El programa está dirigido a comerciantes que, en los próximos diez años, alcanzarán la edad de jubilación. Su finalidad es acompañarles en un proceso de reflexión y planificación del relevo en la titularidad de sus negocios, de modo que los establecimientos puedan seguir abiertos una vez finalizada su etapa profesional.

La iniciativa combina **formación práctica y asesoramiento personalizado**, estructurándose en dos pilares fundamentales:

<b>Sesiones formativas para titulares de negocios</b>  <b>18 de febrero:</b> Presentación del programa <b>23 de febrero:</b> <i>Claves a conocer sobre la jubilación</i> <b>2 de marzo:</b> <i>Planificando el relevo del negocio</i>  <b>Lugar:</b> Espacio Mercero <b>Horario:</b> de 14:00 a 16:00	<b>Tutorías y asesoramiento individualizado</b> , orientados a la elaboración de un plan de relevo adaptado a las características y necesidades de cada negocio.
--	--



Para apuntarse a las sesiones se ha de rellenar el siguiente formulario:

<https://forms.gle/kvuRAuEpBqNJQw1f6>

Desde el Ayuntamiento se ha subrayado que garantizar la continuidad del pequeño comercio es clave para mantener la vitalidad económica y social de Lasarte-Oria. Con este programa se pretende ofrecer herramientas y acompañamiento a quienes han dedicado su vida a sus negocios, facilitando una jubilación tranquila y asegurando un legado empresarial viable para las futuras generaciones.